

Baztango Udalak herri liburutegiko arazoak salatzen ditu

Abenduko hondar egunetan eta urtarrila hasmentan Baztango liburutegia goizez bakarrik egonen da irekita. Baztango Udalak salatzen duen bezala: "eginahalean aritu da bertako langilea falta delarik, ordezkapenak egin ahal izateko lan poltsa egin nahian, baina Nafarroako Liburutegien Saretik ez dugu laguntzarik jaso.

Izan ere, komenigarria da jakitea, Nafarroako Liburutegietako langile guztiak Nafarroako Gobernuaren eskutik daudela, ez Udalaren eskutik, hortaz, beraiei dagokiei liburuzainaren ordezkoa igortzea".

Liburuzaina ez dagoelarik liburutegia ireki ahal izateko lan-poltsa egin nahi dutela adierazi zion Nafarroako Gobernuko liburuzainen elkarteari, eta gai honetaz mintzatzeko Nafarroako Gobernuko Liburutegi Sareko arduradunarekin mintzatu zuten Udaleko arduradunak.

Berak erran zien, oporrak ordezkatzeko ardura Udalena zela, eta nahi bazenuten Liburutegia ixtea udalaren esku zegoela, bertze tokietan hori egiten zutela. Liburutegia ixtea azken aukera zenez, lan-poltsa egiteko asmoz berriz ere Nafarroako Gobernuko Liburutegien sareko arduradunarekin mintzatu omen zuten 2011ko urte hondarrean, probak diseinatu eta zuzentzeko teknikari bat igorriko ote zuten galdetuz. Erantzuna baiezkua izan zen, baina azterketa eredia prestatzeko eta euskaratzeko astia behar zutela eta 2012an berriz deitzeko erran zioten Baztango udalari.

"Euskaraz egiteagatik proben eguna gibelatu egin beharko zela adieraztearekin bat, Udalak eginiko lan-poltsa horretan proba gaindituko lukeenak ez lukeela liburutegia kudeatzeko baliabiderik izanen erran ziguten, ez baita Nafarroako Gobernuaren eskutik ariko lanean" dio Baztango Udalak.

Beraz, eta aipatutako guztiarengatik, Baztango udalak bere gain hartu du aurten ere liburuzainaren ordezkua, baina "bizi dugun egoera zein den kontuan hartuz, egun erdiko ordezkapena egingen du egun osokoa beharrean".

Idatzi batez Nafarroako Gobernuaren jokaera salatu nahi du Baztango Udalak, eta aldi berean Baztango Herri Liburutegiko erabiltzaile diren guztioi udalaren barkamenak eskatzen dizkiete.